


Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Islandiako sumendia eta Frantziako iraultza



WWW.WEBSHOTS.COM

Islandiako Laki sumendiak (argazkian) 1783ko ekainean egin zuen eztanda. Ondorioak apiril honetan lehertu den Eyjafjalla ezagunarenak baino askoz larriagoak izan ziren.

ISLANDIA, 1783KO EKAINAREN 8A. Goiz hartan uhartearen hegoaldeko Laki sumendiak eztanda egin zuen. Hurrengo egunetan, guztira, bost erupzio izan ziren eta 1784ko otsailera bitarte beste bost erupzio txikiago ere jasan zituen. Ondorioz, zortzi arrakala zabaldu eta laba isurtzen hasi ziren. Laba jarioa ez zen beste hainbeste hilabete pasa arte eten.

Islandian uztak alferrik galdu ziren erabat, abelburuen %75 hil zen eta goseak uhartea hartu zuen. Hurrengo hilabeteetan 10.000 pertsona hil ziren, garai hartan Islandiak zituen biztanleen %25, gutxi gorabehera.

Sumendiak hamalau kilometro kubo laba bota zituen, baina isurkin solidoek ez zuten gasek adinako kalterik eragin, eta ez soilik Atlantikoko uharte bolkanikoan.

Lakik 100 milioi tona sufre dioxido jaurti zituen atmosferara. Laino trinko gorrixka egun gutxitan iritsi zen Londresera zein Parisera, eta uztailean ipar hemisferio osoan zabaldua zegoen. Uda hartan, Erresuma Batuan itsasontziek portuetan geratu behar izan zuten eta zenbait lekukok idatzi zuten eguzkiak "odolaren kolorea" zuela. Hodei bolkanikoak pozoituta 23.000

britainiar inguru hil omen ziren uda bero hartan. Ondoren negu luze eta ikaragarri hotza etorri zen, eta hotzak beste 8.000 britainiar eraman zituen.

Eguzki izpiek ezin zuten lurrazalera lehengo indarrak iritsi eta hurrengo hiru urteetan, tenperatura batez beste bi gradu jaitsi zen ipar hemisferioan. Mississippi ibaia osorik izoztu zen, New Orleanseraino eta, beraz, izotza Mexikoko Golkora iritsi zen. 1784an muturreko eguraldiak gosetea eraman zuen Egiptora eta sei biztanletik bat zendu zen. Japoniako inoizko goseterik larrienetakoa ere, Tenmei gosetea, orduantxe izan zen.

Garaikideek ez zuten Lakiren erupzioa ondorengo hondamendiekin lotu, baina egungo historialariek gero eta argiago dute lotura hori. Bost urte geroago Pariseko biztanleak goseak jota zeuden, azken urteetako eguraldi kaxkarrak eta uzta txarrek eraginda. Eta, besteak beste arrazoi horregatik, Frantziako Iraultza piztu zen.

Orotara, Laki sumendiaren erupzioak bi milioi hildako eragin zituela kalkulatu da eta horrek historiako erupziorik hilgarriena bihurtzen du. Hori bai, hegazkinik ez zenez, aireporturik ez zuten itxi behar izan.

Arrastoak

Anne Franken "atzeko etxea" sarean bete dute

AMSTERDAMERA bidaiatu behar izan da, orain arte, Anne Frank eta senitartekoak naziengandik ezkutatu ziren etxea, "atzeko etxea" deritzona, ikusteko. Baina Anne Frank Museo-etxearen webgunean (www.annefrank.org) bisita birtuala egin daiteke hemendik aurrera.

Argi dago ez dela berdin ezkutalekuaren irudikapen interaktiboan sartzea eta bետako zorua zapaltzea. Baina bisita birtual berriak badu abantailarik: Amsterdameko Prinsengracht kaleko etxea hutsik dago egun –Annek horman itsatsitako argazkiak baino ez dira geratzen–, eta webguneko etxean, aldiz, ezkutalekuko jatorrizko elementu guztiak daude: arropa, jakiak, altzariak... Anne Frankek berak egunkarian deskribatu bezala.



WWW.UMPRM.EDU

Anne Frank eskolan, "atzeko etxean" ezkutatu baino lehen.